



**HERRIKO JAIETAN OMENALDI SARIAK EMATEARI BURUZKO ORDENANTZA ARAUTZAILEA**

**Arrazoi-azalpena**

Urtero herriko jaietan hainbat omenaldi egiten dira. Batzuetan pertsona bakarrak eta beste batzuetan talde edo elkarteak omentzen dira, betiere Erreterian kultura, lana, gizarte edo kirol arloan egindako lana eskertzeko. Omendutako pertsona edo elkarte horiek Udalak antolatutako ekitaldietara gonbidatzen ditu, ala nola herriko jaiei hasiera emateko txupinazoa botatzera eta Madalenetan antolatzen diren gainerako ekitaldi ofizialetara.

Omenaldi horiek herriko jaietan sona handikoak direnez, gure Herriak duen nortasunaren ikur bilakatu dira, eta ondorioz, baita Erreterian irudiaren proiektzioa ere. Beraz, instituzionalizazioa indartzeko asmoz beharrezkoa ikusi da omenaldi-sariok arautzea, izangaiak hautatzerakoan eta izendatzerakoan hutsunerik izan ez dadin.

Hori horrela, hauxe da ordenantza arautzailea:

**1 artikulua**

1. Udalak urtero herriko jaietan ematen dituen omenaldi-sariak arautzea da Ordenantza honen xedea, eta sari horri esker, omendutako pertsona, pertsonak edo erakundeak gizartean ospea lortzeko erreferentia izaten dira.

2. Arau honetatik kanpo geratzen da, esaterako, efemeride edo urteurrena betetzen dutela-eta, zein euren jarduera dela medio lortutako titulu edo sariak, baita beste edozein pertsona edo entitateri Udalak egindako aitortze-ekitaldi edo omenaldi oro ere.

**2 artikulua**

1. Ohorezko omenaldi horietan, Erreterian Udalak omenduei Erreterian Hiriaren intsignia banatuko die, Erreterian armarria urre hori eta zuriz landua eta orratz edo zintzilikari formaduna duena.

2. Intsignia uztailearen 22an, Madalena egunean alegia, banatuko da omenaldirako antolatutako ekitaldi handiaren baitan. Honekin batera bestelako sari banaketak ere egin ahal izango dira.

3. Herriko jaiei hasiera emango dien txupinazoa jaurtitzeko ohorea izango du omendutako pertsonak edo erakundeak, eta Udalak jaietan



antolatutako ekitaldi instituzionaletan ere leku berezi bat izango du gordea, bertaratu nahi izanez gero.

4. Goraipamen hori ohorezkoa izango da, eta ez du inoiz eskubide ekonomiko edo administratiborik sortuko.

### **3.artikulua**

1. Omendua izateko izangaiak honako baldintza hauek bete beharko ditu: Errenterian jaioa edo gutxienez 5 urtez Errenterian bizi izana egiaztatzen dutena, baita Errenteriako izaera soziala duten kultura, kirolaren arloko edo bestelako elkarteak, betiere ohiko jarduera gehienak herrian egiten badituzte.

2. Ohiz kanpokoa bada ere, Errenteriakoak ez diren pertsona edo erakundeei ere omenaldi-saria eman ahal izango zaie, baldin eta herriari zerbitzu bereziren bat egin edo ohorea eman badiote.

3. Madalenatan gehienez ere bi intsignia emango dira.

### **4.artikulua**

1. Kasu bakoitzean eman beharreko omenaldi-sariaren jatorria zehazteko, ondoko puntuak hartuko dira kontuan: egindako merezimenduen nondik norakoa, herriaren alde edo herriaren omenez egindako zeregina, eta zeregin hori Errenterian Giza Eskubideak, kultura-balioak edo kirol-sena hedatzeko lagungarria izan ote den, baita sarirako proposaturiko pertsonaren edo erakundearen ezaugarriak ere.

2. Omenaldi-sari hori hil ostean ere eman ahal izango da, salbuespenez.

### **5.artikulua**

1. Omendua izango den pertsona edo entitatea aukeratzeko, udal talde politiko bakoitzak, gutxienez bi hilabete lehenago, egoki irizten dion hautagaia aurkeztuko du, eta aukeraketaren zergatiak azalduko ditu. Eta proposamenari Udal Erregistroan sarrera eman ondoren, Alkatetzari zuzenduko dio.

2. Salbuespen gisa, herrian ospe eta sona duten elkarte eta entitateek euren hautagaia aurkeztu ahal izango dute. Eskaera talde politikoaren eskaera bezala bideratuko da.



3. Ez dira hautagai izango Estatuko Administrazioan edo Autonomia Erkidegoko Administrazioan goi-kargudunak, ezta udal-bazkide edo konfiantzako kargudunak.

4. Zein izango den goraipatua Lehendakaritza eta Barne Antolaketako Udal Batzordean -edo etorkizunean horren egitekoak jasotzen dituenak- eztabaidatuko da, horretarako deia egin ondoren. Batzorde-bilera hau gutxienez herriko jaiak baino hil bat lehenago egingo da.

5. Batzordearen irizpena Udalbatzara eramango da, hain zuzen honek hartu beharreko erabakia har dezan. Erabakia hori gehiengo soilak hartu ahal izango du".

## **6.artikulua**

1. Udalaren idazkaritza Nagusiak erregistro batean jasota edukiko ditu omenaldia egin zaien erakundeen edo pertsonen izenak eta egoera pertsonala, baita saria emateko aintzat hartutako merezimenduak eta sariaren data ere. Erregistro horretan, froga agiriak tarteko, saritutako erakundeak edo pertsonak inskribatuta geratuko dira, saria emandako dataren araberrako ordenan.

2. Udalak ordenantza honen xede den omenaldi-saria kendu ahal izango die muturreko neurri hori kentzeko moduko hutsegiteak edo delituak egin dituztenei, saria emandako data kontuan izan gabe. Horrelakoetan, Ohorezko Liburutik ezabatuko dira.

3. Saria emateko bezalaxe, omenaldi-saria kentzeko proposamena horretarako deituriko ezohiko Eledunen Batzarrean eztabaidatuko da, eta, ondoren, Udal Batzarrari igorriko zaio akordioa onar dezan.

Errenterian, 2006ko ekainaren 23an.

**ALKATEA**

Stua./Fdo.: Juan Carlos MERINO GONZALEZ